

## **Skoda Gunea, aurten, Alderdi Ederren egongo da eta zortzi kontzertu eskainiko ditu**

Heineken Jazzaldiak bere agertoki ikurretako bat berreskuratu du: Alderdi Eder. Bertan kokatuko da aurten Skoda Gunea eta artista oso nabarmenen zortzi kontzertu programatuko ditu "Jazzetik Soulera" goiburupean, guztiak dohainik.

Programazio horretan aurkitzen ditugu 52. Heineken Jazzaldi honetako izen erakargarrienetako batzuk: Ray Gelato, Donny McCaslin, Lucky Chops eta Sir The Baptist, baita tokiko bi talde ere, Luma eta Grande Days (Katapulta zirkuitukoak) eta Anna Meredith britainiar pop instrumentaleko diva berriaren emanaldi eksklusiboa, bere proposamen guztiz pertsonalarekin.

Alderdi Eder eta Udaletxeko Terraza garrantzi handiko tokiak izan ziren 90eko hamarraldian Jazzaldiari eman zitzaion bulkada berrian, hain zuzen ere, Jazz Band Ball-a egiten hasi zenean, Heineken Jazzaldiaren hasiera –eta Donostiako udarena, nolabait esanda– markatzen duen eta doako zenbait agertokitan ospatzen den jazz festa handi hori. Han jo zuten, esate baterako, Blues Brothers taldeak, John Mayall-ek eta Phil Woods-en Big Band-ak.

Skoda Gunea iaz estreinatu zen Konstituzio Plazan. Gunearen programazio formulak izan zuen harrera bikainak leku zabalago eta ikusgarritasun handiagoko batera lekualdatzea aholkatu du. Aurrera jarraitzen du, horrela, Skodaren –Heineken Jazzaldiko auto ofiziala– eta Jazzaldiaren arteko lankidetzak emankorrak.

Honako hau da Alderdi Eder – Skoda Gunearen programa:

Uztailak 22

19:30. **Sir The Baptist**

22:00. **Luma**

Uztailak 23

19:30. **Ray Gelato & The Enforcers**

22:00. **Sir The Baptist**

Uztailak 24

19:30. **Grande Days**

22:00. **Anna Meredith**

Uztailak 25

19:30. **Donny McCaslin Quartet**

22:00. **Lucky Chops**

**Sir The Baptist**

William James Stokes (Sir the Baptist) (ahotsa), Shayla Augusta (ahotsa),  
Desmond Davis (bateria), Robert Woolridge Jr. (baxua)

Musika beltzean sekulako etorkizuna duen izen bat: Sir The Baptist. Haren musika-heziketa gospelean oinarritzen da, estilo horretan ikasi baitzuen abesten aita predikari zuen Chicagoko elizan. Orain indarrez sartu da souleko abeslari berrien unibertsoa. Ray Charles-ek *I Got A Woman*-ekin 1950ean hasitako bide berberari ekin dio, nahiz eta Charles handiak kritika handiak jaso

gospela eta popa bateratzen saiatzeagatik. Sir The Baptist-ek gauza bera bilatzen du: sakratua sekularrean txertatzea, mezu aurrerakoia eta berritzailea erabiliz. 2016ko udan Estatu Batuetako hainbat jaialdi handitan parte hartu zuen: Lollapalooza, Bonnaroo, Made In America, Afropunk... 2017an argitaratu du bere lehen LPa, *Preacher's Kid*.

### **Luma**

Xabier Abel Martínez (gitarra elektrikoa, ahosa), Adrián Viñas Freiría (bateria)

Luma freskoa, zuzena eta bizia den rock bikotea da. Beraien musika arlo honetako hainbat mota ezberdinetan sartu daiteke, oso zaila dela izen bat jartzea. Beraian lehen erreferentziak, *Club EP*-k, Euskadi osotik jotzera eramán zien, baita ere Espainiako Estatuan zehar, ala nola The bellrays, Holy fuck, No age, Siena root, The stryfes, Belako eta Cápsula bezalako bandeeekin eszenatokia konpartituz. Orain, *Airwalk EP* izeneko beraien bigarren estudioko lanarekin datoz, taldearen eboluzio bat bezala eta orain dela bi urte hasi zuten ibilbidearen erantzuna. Beraiek zuzeneko musika ikustera joan behar dela esaten dute, etxean gelditu beharrean Youtube-n atzeratuz, abesti bakoitzean hamar segundu bakarrik entzuten.

### **Ray Gelato & The Enforcers**

Ray Gelato (saxoa), Gunther Kurmayr (pianoa), Ivan Kovacevic (kontrabaxua), Martí Elías (bateria)

Ray Gelatok, The Enforcers lagun dituela, betiko jazz klasiko onenaren energia gainezka duen show-a eskaintzen du. «Swingaren aitabitxia» goitizenez bataiatu duten saxofoi-jotzaile, abeslari eta orkestra-zuzendari bikain honek 40 eta 50. hamarraldietako jazzeko showmen handien tradizioari eusten dio,

swingaren aroko konposizioen jatorrizko moldaketak interpretatuz. Ikuskizun oparo honek jazzak hasieratik bereak zituen bi osagai ditu: umorea eta entretenimendua. Gelatoren saxo tenorraren soinu mardulak –Ike Quebec-enean eta Illinois Jacquet-enean oinarritua–, bere abesteko estiloak –Louis Prima eta Louis Armstrongengandik ikasia–, showman gisa dituen dohainek, eta banda honentzat bereziki idatzitako moldaketa bikainek egungo swing musikaren estandarte nagusietako bat bihurtzen dute. Bira honetan, Gelatok bere disko berria aurkeztuko du, *Energy!*, Quadrant Records etxeak argitaratu berri diona.

### **Grande Days**

Ion Grijalbo (gitarra, ahotsa), Ignacio Bilbao (gitarra, ahotsa), JM Lluch (baxua, ahotsa), Ander Vildósola (bateria)

2013an sortua, zaila da Grande Days taldea sailkatzea. Bere musika indie rock doinuetera gerturatzen da post rock eta rock finena alde batera utzi gabe. Bost abestik osatutako lehendabiziko EPa Karlos Osinagarekin "Txap" (Lisabö) grabatu zuten Tolosako Bonberenea estudioan. Lan honetan Za! taldeko Pauren kolaborazioa izan zuten. AIE (Artistas en Ruta) programaren 2017ko zirkuituan aukeratuak izan dira eta Zarata-Mondosonoro aldizkariak urteko demo onena bezala aukeratu zuen *Spark*.

### **Anna Meredith**

Anna Meredith (elektronika, perkusioa, ahotsa), Jack Ross (gitarra, ahotsa), Chris Brice (bateria), Tom Kelly (tuba), Maddie Cutter (txeloa)

Dantzarako musika elektronikoa, ordenagailuz egina, baina baita orkestra klasikoko instrumentuekin ere. Haren azkeneko albuma, *Varmints*, tekno-popeko disko deigarrienen mailan dago. Anna Meredith-en gorakada 2008an abiatu zen, BBCko arrakasta handiko saio baterako *-Last Night of The Proms-* musika idatzi zuenean. Ordutik hona kate horrentzat musika konposatzen jarraitu du; bere opera propioa idatzi du, *Tarantula In Petrol Blue*; Shlomo beatboxer-arekin elkarlanean *Concerto for Beatboxer and Orchestra* sortu du; BBCko *Young Musician Of The Year* telebista-saioko epaimahaiko kide izan da eta bi sari jaso ditu musika klasikoaren alorrean.

### **Donny McCaslin Quartet**

Donny McCaslin (saxo tenorra), Jason Lindner (teklatuak), Jonathan Maron (baxua), Nate Wood (bateria)

Ikus-entzule gehienek David Bowie hilezkorrekin egindako lankidetzagatik identifikatuko dute jazzeko izen berri handienetakoa dugun saxofoi-jotzaile hau. Bere azken diskoa grabatzeko, *Blackstar*, ingeles abeslari mitikoak Donny McCaslin-en laukotearekin lan egitea erabaki zuen, Maria Schneider konpositore eta jazzeko orkestra-zuzendariaren gomendioei kasu eginik, zeinak 2014an lan egin baitzuen Bowierekin, *Sue (Or in a Season of Crime)* singlean. McCaslin-ek esperientzia aipagarria metatu du jazzaren munduan, Steps Ahead, Gil Evans, Danilo Pérez, Dave Douglas eta aipatutako Schneider-ekin egin dituen lankidetzen bitartez, eta jazzeko bakarlari onenaren sarirako

izendatu zuten 2004ko Grammyetan. Haren azken lanaren izenburua, *Beyond Now* (2016), *Blackstar* diskorako egindako saioetan grabatutako Bowieren abesti batena da, azkenean diskoan jaso ez bazen ere.

### Lucky Chops

Joshua Holcomb (tronboia), Daro Behroozi (saxo tenorra), Joshua Gawel (tronpeta), Raphael-Brian Buyo (sousafonoa), Charles Sams (bateria).

Energia gainezka duen brass band hau 2015ean sortu zen, eta bi urte osatu baino lehen, The Soul Rebels edo Dirty Dozen Brass Band bezalako taldeei aurrea hartu die arrakasta handieneko metalezko banden podiumean. Horretarako, gaztetasun iraingarri batean eta pop, funk eta souleko klasikoak interpretatzeko orduan duten ausarkerian oinarritzen dira. Adele-ren *Hello*, edota *Funkytown/I Feel Good* eta *Stand By Me* piezei egin dizkieten bertsoiek milioika erreproduzio metatu dituzte sare sozialetan. Haien emanaldietan parrastaka eskaintzen dira ikuskizuna eta festa. Aipatzekoa da dakarten artista gonbidatua ere, Grace Kelly saxofoi-jotzailea, zeinak askotan jo baitu Phil Woods, Wynton Marsalis eta lehen mailako beste hainbat izarrekin.